

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskal Autonomi Erkidegoko  
Erakunde Autonomoak**

**Organismos Autónomos de la  
Comunidad Autónoma de Euskadi**

**2010**



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	11
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA .....	11
III.2 LANGILERIA .....	11
III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK .....	12
III.4 ONDASUN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN EROSKETAK .....	12
III.5 BESTELAKO ALDERDIAK .....	15
IV. URTEKO KONTUAK .....	16
ALEGAZIOAK .....	19
ABREVIATURAS .....	27
I. INTRODUCCIÓN.....	29
II. OPINIÓN.....	30
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	30
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	33
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	34
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	34
III.2 PERSONAL .....	34
III.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES .....	35
III.4 COMPRAS DE BIENES Y SERVICIOS E INVERSIONES .....	35
III.5 OTROS ASPECTOS .....	38

IV. CUENTAS ANUALES.....	39
ANEXOS .....	41
A.1 Naturaleza de los entes fiscalizados .....	41
A.2 Tasas y otros ingresos .....	42
A.3 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes .....	43
A.4 Gastos de personal .....	44
A.5 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	45
A.6 Inmovilizado .....	47
A.7 Análisis de contratación .....	48
ALEGACIONES .....	51

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 21a  
Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2013



## LABURDURAK

BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
D78/2005	78/2005 Dekretua, EAERen Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen Lanpostuen Zerrendak arautzen dituena.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
3/10 Legea	EAERen Aurrekontu Orokoren Legea aldarazten duen legea.
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
EAEONAL	1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina.
OHSAS	Occupational Health and Safety Assessment Series.
LAP	Lan Arriskuen Prebentzia.
1627/97 ED	1627/1997 Errege Dekretua, Eraikuntza Lanetan Segurtasun eta Osasunaren Gutxieneko Xedapenei buruzkoa.
817/09 ED	817/2009 Errege Dekretua, SPKL partzialki garatzen duena.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
EAETB	1/1994 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Testu Bategina.
TPPLTB	1/2007 Legegintzako Dekretua, EAERen Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen Legearen Testu Bategina
EAB	Enpresen Aldi baterako Batura.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, EAEko Erakunde Autonomoen 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontularitzakoak: Urteko Kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat dato zela egiaztatzea. Kontu Orokorrak egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta aurrekontuen likidazioa besarkatzen ditu.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Erakunde autonomoak zuzenbide publikoko erakundeak dira eta nortasun juridiko propioa dute. EAERen sei Erakunde Autonomoak administratiboak dira; ondotik jaso ditugu horien izenak eta sorrera araudia:

Erakundeak	Araudia
Helduen Alfab. eta Berreuskalduntz. Erak. eta Euskalt. Arautzekoa (HABE) .....	29/1983 Legea
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) .....	16/1983 Legea
Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia (EHPI) .....	4/1992 Legea
Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT) .....	4/1986 Legea
Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea (OSALAN) .....	7/1993 Legea
Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde) .....	(*) 2/1988 Legea

(\*) 4/2005 eta 3/2012 Legeek aldarazitakoa

Horien aurrekontuak eta kontuak EAERenean barne hartu dira.



## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **LANGILERIA**

1. Eustat: Urteroko hainbat inkestetarako datuak biltzeko egitekoak Erakundeak langileriareni aldi baterako kontratazio bidez gauzatu du; duten izaera errepikaria aintzat hartuta, epaitegiak kontratu mugagabe ez jarraitutzat hartu eta 2009 eta 2011 bitartean 96 langileren aldeko epaiak ebatzi dituzte. Funtzio publikoaren arautegiak (EFPLren 23. artikulua) agintzen du langileen etengabeko beharrizanak LZn islatu behar direla, gerora dagokion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.

#### **Kontratazioa (ikus A.7)**

2. Osalan-ek publikotasunik eman gabe procedura negoziatu bitartez prestakuntza aretoak gaitzko zaharberritze lanak esleitu zituen, 234.120 euroen zenbatekoan (BEZ barne). Obraren azken kostua 113.259 euroan gehitu zen kontratugile berari lehiarik bideratu gabe lan osagarriak esleitzearkin. Kontratuaren xedea zatikatzeak obra nahitaezko den publikotasun eta lehiarik gabe esleitzea eragin du (SPKLren 74.2 eta 161.2 artikuluak). Gainera, OSALANek ez dio obraren esleipen hartzaileari eskatu kaudimen tekniko eta ekonomikoa egiaztatzeko eskatu, pleguak agintzen duen moduan (A1 eta C akatsak).
3. Osalan: Laneko segurtasun eta osasunari buruzko komunikazio eta sentikortze kanpainaren kontratazioa Irungo Gabonetako Haur Parkean erakustoki bat eta lau merkataritzako zentrotan beste hainbeste erakustoki jartzera mugatu zen, 237.800 euroen kostuarekin. Agiri teknikoak ez zuen kontratatu beharreko kanpaina mota zehazten, judizio balioa eskatzen zuten balorazio irizpideak orokorrak ziren eta txosten teknikoak pleguetan aurreikusi gabeko alderdiak balioztatu zituen (biztanleriari orokorki, eta haurrei zehazki, Gabonetako kanpaina aldian zuzendutakoa); honela, bada, esleipen horrek lehiatzaileekiko tratu-berdintasun eta gardentasun printzipioak urratzen ditu (SPKLren 1 eta 123 artikuluak). Gainera, OSALANek ez dio esleipen hartzaileari kanpainaren egiazko kostua egiaztatzeko aurrekontu xehatua aurkezteko eskatu eta honenbestez, ezin egiaztatu izan dugu alderdi hori. Azkenik, zerbitzua 2009an eman zen, 2009ko abenduaren 30ean kontratua gauzatu aurretik, 2010eko aurrekontuaren aurreratutako gastu modura izapidetu bazen ere (A2, A4 eta C akatsak).
4. Osalanek 196.040 euroan esleitu zuen kongresu baten antolakuntza; kontratu horren egikaritzan zehar beharrizan berriak sortu ziren erakustokien muntaia eta zerbitzu informatikoen kontzeptuan; horiek guztiak esleipen hartzaile berberari esleitu zitzaizion kontratu txiki modura, guztira 80.272 euroen zenbatekoan. Hasierako kontratuaren aurreikusi ez diren zerbitzu osagarri hauek ez dira kausa berri edo aurreikusten ezinezkoak eta esleipen prezioaren % 41 egiten dute, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratuz (B1 akatsa).



5. **Emakunde:** 2008ko abenduan 106.857 euroan esleitu zen aretoak garbitzeko kontratua eta 2009an aldatu eta % 35 gehitu zen hilabeteko kostua; 2010eko urrian bi urtetarako luzatu zen. 2009ko aldaketa ez da kausa berri edo aurreikusi ezinezkoekin arrazoitzen eta kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egiten du (B1 akatsa).
  
6. **Osalan eta Emakunde:** Kontratu txiki modura edo prozedura negoziatu bitartez izapideztako erosketak azaleratu dira, zeinetan kontratuaren xedea zatikatu den, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta:

	Euroak milakotan		
	Faktura Kop.	Hirugarren Kop.	Gastua 2010
<b>ERAKUNDEA ETA KONTZEPTUA</b>			
Osalan-Promoziorako hainbat merchandising material.....	33	5	340
Osalan-Bidai agentzia: Hegaldi-hotelen kontrat.....	28	1	189
Osalan-Eskupaper, kartel eta best. Banak. (urtar.).....	5	2	90
Emakunde: Martxoaren 8ko publizitate kanpaina .....	8	8	166
Emakunde: Gizonduz programaren garapena .....	2	1	116
Emakunde: V. Berdintasun Planaren jarraipena .....	2	1	80

### DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.5)

7. **Osalan:** aurrekontuak 1,4 milioi euroren diru-izendapenak barne hartzen ditu, sei antolamenduren artean banatzen dena, langileen ordezkari, empresario eta kooperatibek osatua. Osalanek ez die diru-laguntzen hartzaleei laguntzen norakoa justifikatzeko eskatu, diru-laguntzen araudia urratuz (EAEMONALen 49.11 art.).
  
8. **Osalan:** zuzenean 152.338 euroren diru-laguntza eman zion elkartea bati eraikuntzaren sektorean sentsibilizatze-kanpaina garatzeko (Lotu programa); ez zuen, baina, lehia salbuespena egoki justifikatu (EAEMONALEN 49.7 art.). Gainera, erakunde onuradunak ez zuen kanpaina berak egin, baizik eta bi empresa kontratatu zituen (EAEMONALEN 50.2 art. eta DLOren 29. art.).

### BESTELAKOAK

9. Erakundeen 2010erako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurrardearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek EAETBren 57. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen iritzira, 1etik eta 9ra bitarteko paragrafoetan azaldutako ez-betetzeak alde batera, 6 erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen 2010eko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikina, data horretan itxitako Egoera Balantzea eta 6 Erakunde Autonomoen Funts Propioak eragiten dituzten doiketak:

Eranskina	Kontzep.	Diruzaintz. geldikina	Euroak milakotan			
			Aurrekontukoa	Ondarekoa	Pasiboa	Funts propioak
A.2	IVAPI fakturatutako orduen zorpetzean doiketa.....	(3.180)	(3.180)	-	(3.180)	
-	Euskaltegiak matrikulen zorpetzean doiketa.....	1.042	-	(1.042)	1.042	
A.5	Euskalt. prib. emandako diru-lag. zorp. doik. ....	2.873	-	(2.873)	2.873	
<b>HABE GUZTIRA</b>		<b>735</b>	<b>(3.180)</b>	<b>(3.915)</b>	<b>735</b>	
-	Zorpetu gabeko diru-lag. gastua: EHU Kongr.....	110	-	(110)	110	
A.2	HABEK fakturatutako orduen zorpetzean doiketa.....	3.180	-	(3.180)	3.180	
-	10.12.31n tasa & prezio publ. Kaudimeng.zuzk.....	(85)	(85)	-	(85)	
<b>IVAP GUZTIRA</b>		<b>3.205</b>	<b>(85)</b>	<b>(3.290)</b>	<b>3.205</b>	
-	2010 ordains.aldak., 1. hiruhil. ordain. 2011.....	(213)	-	213	(213)	
-	Euskarako 3 irakasl. Lanuzteag. kalteordaina .....	(197)	-	197	(197)	
<b>APPV GUZTIRA</b>		<b>(410)</b>	<b>-</b>	<b>410</b>	<b>(410)</b>	
-	EAE-aurreik.ord.prest.dirulg., 2010 lik. pos. ....	302	302	-	302	
-	Baimend. gstd kont. erreg. gabeko 2010 gast.....	(336)	-	336	(336)	
<b>Osalan GUZTIRA</b>		<b>(34)</b>	<b>302</b>	<b>336</b>	<b>(34)</b>	

- HABE:** Honekin baterako Kontuek udal euskaltegiei 2010/2011 ikasturtearen kontzeptuan 2010eko abendura arte emandako diru-laguntzak barne hartzen dituzte; ez, ordea, 2011ko urtarriletik irailera bitarteko gainerako hilabeteen kontzeptuko konpromisoa, 7,9 milioi euroan balioetsi zena 2011ko aurrekonturako, 2010eko ekitaldi itxiera baino lehen onartu zena.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 2ra bitarteko idatz-zatieta salbuespenen eragina salbuetsita, EAren Erakunde Autonomoen Kontu Orokorek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- Osalanek Barakaldoko lokal batzuen erabateko zaharberritze lan baten konponketa modura 291.742 euro erregistratu zituen, inbertsio modura erregistratu beharrean.

#### **III.2 LANGILERIA**

- Funtzionarioekin betetzen ez diren aldi baterako beharrizanei aurre egiteko deialdiak Administrazio Orokorraren eta Erakunde Autonomoentan intranetean argitaratzen dira. Zerrendetako kideei ez zaie horren berri ematen eta zerrenda horiek baliatzen dira soilik intranet bidez egindako deialdira izangaiak aurkezten ez direnean. EHPIko lan-kontratuko langileen kasuan deialdia Erakundeko eta Barne Saileko aldi baterako lan-kontratuko langileei mugatzen zaie (langile hauen hitzarmen kolektiboaren 16. art.).
- Lanpostu Zerrendetan aldaketa partzialak egin ohi dira eta honenbestez, 78/2005 Dekretuaren 7.3 artikuluari jarraiki, hainbatean behin osorik argitaratu behar lirateke. EHPIren lan-kontratuko langileen LZ osoa ez da 1997az geroztik argitaratu. Gainerako Erakundeetan azken argitalpen osoa 2007koa da.
- Ondoko taulan 2010eko abenduaren 31n langile finkoek betetzen ez zituzten lanpostuen ehunekoa kalkulatu da eta ehuneko altuak eskuratu dira kasu guzietan, HABEn izan ezik.

	Langile kopurua					
	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
Karrerako funtz. & lan kontr. Fink.....	58	42	63	42	118	12
Bitar. funtz. & aldibat. lan kontr.....	7	59	49	86	59	18
2010eko aurrekontu plantila.....	67	97	117	104	187	37
Plantil. g. % bitart. & aldibater.....	10	61	42	83	32	49



### III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- **HABE:** Udal euskaltegientzako deialdiak irakasleen soldata gordina finantzatuko dela besterik ez du esaten (3. art.). Laguntzak banatzeko kalkuluek (12,6 milioi euro) ezaugarri ugari hartzen dituzte aintzat; komenigarria litzateke horiek deialdian bertan barne hartzea.
- **HABEk** bi deialdi egiten ditu euskarazko ikastaroak diruz laguntzeko, bata udal ikastetxeentzako eta bestea, ikastetxe pribatuentezko; ordea, irizpide ezberdinak baliatzen ditu; komenigarria litzateke kalkulu sistemak berdintzea, faktore bereizgarriak identifikatzuz (ordainsari mailak, ikasle/irakasle ratioak, lagunzaileak, e.a.). Bestetik gehitu behar da bi kasuetan deialdiak urtekoak direla eta ez dagoela finantzaketarako esparru urteanitzekorik.
- **HABE:** Diru-laguntzen araudi autonomikoak agintzen du deialdi bakoitzak diru-sarrera ez publikoen bateragarritasuna arautuko duela (EAEMONALen 49.10 art.). Euskaltegi pribatuen deialdietan zehazten da lagunza publikoek ezingo dutela kostuen % 70a gainditu eta egiaztagiria aztertzerakoan egiaztatu egiten da. Aurreko ehunekoaren indarraldia egiaztatzea ere komeni da, izaera pribatuko sarreren gaineko informazioa eskatuz.
- **Osalan:** Kontseilu Nagusiak estatuko lan-arriskuen prebentziorako Fundazioaren diru-laguntzak banatzea erabaki du autonomia esparruko ekintzak finantzatzeko, lanean segurtasuna eta osasuna hobetzeko helburuarekin; ekintza horiek sindikatuek, EAEko sektorearteko patroien antolamenduek eta Osalanek berak garatzen dituzte. Deialdia BOEn argitaratu zen eta Osalanek Kontseilu Nagusiko kideei jakinarazi zien, baina laguntzen araudiak agintzen du web orrian eman behar zaiola publikotasuna (3. art.) eta ez zen baldintza hori bete. Osalanen zerbitzu teknikoek bi sindikatu eta patroien lau antolamenduek aurkeztutako sei eskabideak balio-neurtu zituzten; bertan proposatzen zuten EAERi esleitutako 980.438 euroak guztien artean banatzea eta hala egiaztatu zuen estatuko Fundazioaren Patronatuak 2010eko abenduan. Txosten teknikoa ez zuen Osalango Batzorde orokorrak onartu, bera baita eskabideak balioztatu eta estatuko Fundazioari dagokion proposamena egiteko eskumena duen atala (12. art.).

### III.4 ONDASUN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN EROSKETAK

2010ean Erakunde Autonomoetan indarrean zeuden 15 kontratu nagusienak aztertzean, ondoko alderdi hauek azaleratu dira, II. atalean aipatutakoez gain (ikus A.7):

- IVAPek prentsan publizitate zerbitzuak esleitu zituen, 298.500 euroan balioetsitako aurrekontuarekin eta lehiaketari publikotasuna eman zion EHAAn eta DOUEn, baina ez BOEn (*A3 akatsa*).
- Guztira 4,3 milioi euroan esleitutako 9 espedienterent (1, 2, 4, 5, 6, 9, 10, 11 eta 12 zk.) pleguek irizpide orokorrak barne hartzen dituzte, zehaztugabeak, ez balioztatuko diren ezaugarri zehatzak ez baliatuko den balorazio sistema ere zehaztu gabe (*A4 akatsa*).



- **Osalan:** Erakunde honen 3 espedienteen oinarri-arau tekniko eta administratiboen pleguak, 667.960 euroan egindako esleipenei zegozkienak, ez zituzten onartu (*A5 akatsa*).
- Guztira 1,9 milioi euroan egindako esleipenei dagozkien 5 espedientetan (8, 10, 11 12 eta 14 zk.) presako izapidea onartu da espedientearen, kontratazio atalak behar bezala arrazoitutako adierazpenik ez dagoela, SPKLk agintzen duen moduan (*A6 akatsa*).
- 10 espedienterentz lizitazio iragarkiek (2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 14 zenbakiak), 6,6 milioi euroan esleitutakoak, ez dute ondotik zehaztutako alderdiren bat jasotzen: kontratua luzatzeko aukera, kontratazio araudiaren ondorioetarako zenbateko osoa eta/edo kontratu-xedearren CPV kodea (kontratu publikoen ohiko hiztegia). Gainera, 11 eta 14 espedienteetan ez dira esleipen irizpideak adierazten (*A7 akatsa*).
- **HABE eta Osalan:** Guztira 430.592 euroan esleitutako 2 espedientetan (1 eta 11 zenbakiak), txosten teknikoan balio judizioa eskatzen duten faktoreei esleitutako puntuazioak ez daude behar bezala arrazoituak (*A8 akatsa*).
- **IVAP eta Osalan:** Guztira 834.796 euroan esleitutako 4 espedientetan (3, 11, 12 eta 13 zenbakiak), ez zitzaion esleipenari publikotasunik eman (*A9 akatsa*).
- **Osalan:** Erakunde honetan aztertu den obra bakarra (13 zk. espedientea), 234.120 euroan esleitu zena, derrigorrezkoa den Segurtasun eta Osasun Plana onartu gabe eta dagokion udal lizenzia eskatu gabe abiarazi zen. Obren harrera aktarik ere ez zen egin, berme aldiaren hasiera zehazten duena (*B2 akatsa*).
- **IVAP eta EHPI:** Kontratuetan aldaketak egiten direnean kontratistak gordailatutako bermeak gaurkotu behar dira; hau ez zen horrela egin edo atzerapenez egin zen milioi 1 euroren zenbatekoan esleitutako bi espedientetan (6 eta 8 zk.ko espedienteak) (*B3 akatsa*)..
- **HABE:** Aztertutako laguntha kontratuari (1 zk. espedientea), 191.632 euroan esleitu zena, aldez aurretik ez zitzaion nahitaezkoa den fiskalizazioa egin (*C akatsa*).
- **IVAP:** prentsa idatzian eta digitalean publizitate guneak erosteko kontratuak, urteko 149.250 euroren balioetsitako kostua duena, komunikabide bakoitzaren tarifen gainean hainbat beherapen ezartzen ditu, baina ez ditu tarifa zehatzak finkatzen (*C akatsa*).
- **IVAP:** Euskararen erabileraari laguntha emateko teknikarien zerbitzuaren lehiaketa (trebatzaileak) hiru euskaltegik eratutako EABB batek egindako eskaintza bakarra jaso zuen. Kontratua multzoetan banatzeko aukera aztertzea komeni da, ahalik eta lehiatzaile kopuru handienari aukera ematearen (*C akatsa*).
- **EHPI:** Garbiketa zerbitzuaren kontratua izapidetzean atzerapenek eragin zuten aurreko espedientea gehiengo indarraldiaz (2010eko maiatzaren 31) haratago luzatzea (2010eko abuztura arte), esleipen berria egin arte alegia, 332.042 euroren kostuarekin ekaina-abuztua aldian (*C akatsa*).



- **Osalan:** Kongresu bat antolatzeko laguntza kontratuaren plegu teknikoak, 196.040 euroan esleitutako, gauzatu beharreko ekintzak zehazten zituen baina hainbat alderdi ez zeuden behar bezain zehaztuak eta horrek kontratu aldaketak eragin zituen, II. atalean jaso ditugunak, eta gainera, 112.869 euroan publizitate, aretoen eta ikus-entzunezkoen alokairu kontzeptuan beste enpresa batzuei esleitutako gastu osagarriak. Horrez gain, plegu horiek eta kontratuaren esleipen hartzalearen eskaintzak kontratutik eratorritako kobrantza eta ordainketa osagarriei egiten die aipamen: babesleak, bertaratzeko izen emateak eta hotelen erretserbak, batik bat, expedienteetan horien kitapenik ez dagoela, alderdi hau arautu ez zelako (C akatsa).

### Aurreratutako funtsak eta bestelako alderdiak

- Erakunde guztiekin dituzte ordainketa desentralizatuak egiteko baimendutako kontuak; kontuen kopurua dela eta Osalanenak gailentzen dira, 2 milioi euroren zenbatekoarekin. Erakunde honetan 18.000 euroren banako muga gainditu duten bi ordainketa egin dira eta gastu zatikapenak azaleratu dira, II. atalean zehatz jaso ditugunak; gainera, prozedura negoziatu bitartez izapidetu behar ziratekeen erosketak.

KONTZEPTUA	Milako eurotan		
	Fra. kop.	Hirug. Kop.	Gastua 2010
Irakask. Zentr. eta sindik.: PRLko lang. Ikast. ....	106	20	193
Eskuorri, kartel eta bestel. banaketa (maiataza) .....	4	1	58
Osalaneko erakust. 4 azoket. eraman, muntatu, jaso .....	4	1	44
Txostena eta ikastaroa ematea.....	2	1	36
Jardunaldi teknikoak: ikasmateriala.....	2	1	33
Laneko psikosoziol. Jardun.: Aretoen alok.& bste.....	2	1	27

Erosketa txikiak (18.000 eurora arte) bereizi gabe ordain daitezke diruzaintzako kontu nagusietatik edo zentralizatu gabeko kontuetatik. Azken molde honekin kontuaren arduradunak ordainagiria onartu eta ordaintzen du eta gerora azaltzen du aurreratutako funtsei emandako erabileraren berri. EAEko sailen unitate nagusientzat bakoitzaientzat muga txikiagoa ezarri zen, 3.000 eurorena (Ogasun Sailburuaren 2000ko martxoaren 30eko Agindua); gomendagarria litzateke horren aplikazioa zentralizatu gabeko gainerako unitateetara zabaltzea, Osalanen azaleratu den arazoa saihestearren.

- **Osalan:** Bidai agentzi nagusienaren ordainagiriek, 2010ean 188.888 euroren gastuak egin dituztenak, ez dituzte hegaldi zein hotelen prezioak xehaturik jasotzen, guztiak kontrataturiko bidai zein aginduren arabera metatzen baitituzte. Gainera, merchandising materialaren erosketetan aleko balio handiko 42 elementu barne hartu dira (e-bookak), 16.548 euroren zenbatekoan; horien norakoa aztertu egin beharko litzateke.



- **HABE:** Urtero azterketen bi deialdi egiten dira hizkuntza mailak egiaztatzeko; horiek prezio publiko bidez finantzatzen dira (18 euro deialdi bakoitzeko), zerbitzuaren kostuak ordaintzeko adina ez dena, prezio publiko horiek arautzen dituen araudiak ezarritako irizpideari aurkajarrita (TPPLTBren 32. art.).
- **HABEk** funtzionarioen euskarazko ikastaroetarako matrikulak ordaintzen ditu, 4,2 milioi euro 2010ean, euskaltegi bakoitzari bere tarifaren arabera ordainduz prezio finkoak ezarri ordez. Ordainketa baldintzak ere finkatu gabe daude eta 2010ean 2010/11 ikasturteko matrikula osoaren gainean hainbat ehuneko fakturatuaz: % 50 funtzionarioen berariazko taldeetan; % 75 talde arruntetan barne hartutako funtzionarioentzat eta % 100 autoikaskuntza eta euskaltegi publikoen kasuan. Sistematika hau erregistratutako gastua zorpetutakoa baino 1 milioi txikiagoa izatea eragin du.
- **IVAPek HABEri** 2010ean langile publikoentzat euskararen irakaskuntzaren ardura eman zion, aurretik zuen 2003ko hitzarmena berrituz. Ardurapean duen zerbitzu nagusia presentziazko ikastaro arruntak dira (urritik otsailera edo ekainera), HABEk osotasunean 2010eko abenduan fakturatu zuena. 2010eko mandatuak ez ditu zerbitzuak fakturatzeko baliatu beharreko irizpideak arautzen eta 2011ko gastuen aurrerakina ordaindu zitzaion HABEri, 3,2 milioi eurorena; horren beharra justifikatu egin beharko litzateke eta aurrerakin modura azaldu, ordainagiri arrunt modura izapidetu beharrean.

### **III.5 BESTELAKO ALDERDIAK**

- **Osalan:** Lan-arriskuen Prebentziorako Fundazioaren lurralte diru-laguntzen 2010eko deialdiak Erakundearentzat % 30era arteko laguntzak gordetzen zituen; ez zituen honek, ordea, lagunza horiek baliatu eskabiderik aurkeztu ez zuelako.
- **EHPI:** Ostalaritza zerbitzuen prezioak ez ziren 2011ko urrira arte finkatu; zerbitzu horiek 2010ean 67.044 euroren sarrerak eragin zituzten.
- Funtzionarioen eskuordetza bidezko ebazenak ohikoak izan ohi dira Erakundeetan kontratazio atal bakarra dagoelako; halakoetan, ordezkaritza eskuordetu duen arau zehatza adierazi behar da. Gainera, jaulkitako ebazen guztien erregistroa gordetzea komeniko litzateke, edukia kontsultatzea beharrezkoa den kasuetarako expedienteak banan bana aztertu behar izatea ekidingo lukeena.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Pùblicas

#### IV. URTEKO KONTUAK

##### 2010-EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK		HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
3.- Tasak eta bestelako sarr.....	(A.2. eran.)	11.063	2.019	110	27	29	8
4.- Transf. eta dirulag. Arr.....	(A.3. eran.)	31.388	15.133	12.915	12.745	15.191	5.929
5.- Ondare sarrerak.....		1	2	35	1	1	-
7.- Kapital transf. eta diru-lag. .....		-	-	-	111	-	-
8.- Fin. aktiboen gutxitzea.....		8	16	13	8	41	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>42.460</b>	<b>17.170</b>	<b>13.073</b>	<b>12.892</b>	<b>15.262</b>	<b>5.943</b>
<b>ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK</b>		<b>HABE</b>	<b>IVAP</b>	<b>EHPI</b>	<b>Eustat</b>	<b>Osalan</b>	<b>Emakunde</b>
1.- Langileria gastuak.....	(A.4. eran.)	3.697	5.407	8.152	7.885	9.280	1.898
2.- Funtzionamendu gastuak.....		6.474	13.744	5.790	3.617	4.362	2.208
3.- Finantza gastuak.....		-	-	-	1	-	-
4.- Transf. eta dirulag. Arr.....	(A.5. eran.)	33.011	479	-	12	2.927	1.052
6.- Inber. errealen better.....		168	99	325	981	186	283
7.- Kap. transf. & diru-lag. .....	(A.5. eran.)	-	-	-	-	727	-
8.- Finantza aktiboen igoera.....		-	6	23	7	16	5
<b>GUZTIRA</b>		<b>43.350</b>	<b>19.735</b>	<b>14.290</b>	<b>12.503</b>	<b>17.498</b>	<b>5.446</b>

##### AURREKONTUAREN EMAITZA ETA GELDIKINA Euroak milakotan

	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
Eskubide kitatuak.....	42.460	17.170	13.073	12.892	15.262	5.943
Obligazio aitortuak .....	43.350	19.735	14.290	12.503	17.498	5.446
Eskubideen baliog. aurrekontu itxietan .....	-	(6)	-	-	-	-
Eskubideen baliog. aurrekontu itxietan .....	-	29	-	-	53	12
<b>A. AURREKONTUAREN EMAITZA 2010</b>	<b>(890)</b>	<b>(2.542)</b>	<b>(1.217)</b>	<b>389</b>	<b>(2.183)</b>	<b>509</b>
<b>B. 09.12.31-N DIRUZAINIZA GELDIKINA</b>	<b>1.386</b>	<b>7.875</b>	<b>9.444</b>	<b>3.475</b>	<b>12.328</b>	<b>1.579</b>
<b>A+B. 10.12.31-N DIRUZAINIZA GELDIKINA</b>	<b>496</b>	<b>5.333</b>	<b>8.227</b>	<b>3.864</b>	<b>10.145</b>	<b>2.088</b>
Atxik. Geld. eta zalantzako kobrag. zuzk.....	-	-	-	-	-	-
<b>DIRUZAINIZA GELDIKIN ERABILGARRIA 10.12.31-N</b>	<b>496</b>	<b>5.333</b>	<b>8.227</b>	<b>3.864</b>	<b>10.145</b>	<b>2.088</b>

##### DATOZEN EKITALDIETAKO KONPROMISO KREDITUAKE Euroak milakotan

	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
Funtzionamendu gastuak.....	120	3.176	1.549	78	60	15
Transf. eta diru-lagunzta arruntak .....	12.192	77	-	61	-	24
Inbertsio errealaik .....	124	-	-	80	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.436</b>	<b>3.253</b>	<b>1.549</b>	<b>219</b>	<b>60</b>	<b>39</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### 10.12.31 EGOERAREN BALANTZEA

Euroak milakotan

	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>						
Ibilgetu ezmateriala.....	2.092	855	236	4.965	2.837	715
Ibilgetu materiala .....	5.991	1.940	17.499	1.925	5.418	715
Pilatutako amortizazioa.....	(3.226)	(1.119)	(9.428)	(4.495)	(2.471)	(502)
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>						
Aurrekontuko zordunak.....	73	681	15	6	-	3
Kobratzeko beste kontu batzuk .....	-	38	27	11	40	10
Inbert. Fin. Iragank.-EAren saldoa.....	10.043	6.521	11.237	6.010	13.768	3.560
Eskud. eta best. aktibo lik. baliok .....	92	30	7	98	114	46
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>15.065</b>	<b>8.946</b>	<b>19.593</b>	<b>8.520</b>	<b>19.706</b>	<b>4.547</b>

	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
<b>BEREZKO FONDOAK</b>						
Pilatutako emaitzak.....	4.153	9.644	13.191	5.800	13.336	1.959
Ekitaldiaren emaitza.....	(868)	(2.616)	(1.537)	469	(2.272)	666
<b>DIRU-SARRERAK, HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKOAK</b>						
Kapital diru-laguntzak.....	2.068	-	4.903	-	4.902	400
<b>HARTZEKODUNAK</b>						
Aurrekontuko hartzekodunak .....	9.375	1.481	2.301	1.493	2.854	1.336
Bestelako hartzek. ....	337	437	735	758	886	186
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>15.065</b>	<b>8.946</b>	<b>19.593</b>	<b>8.520</b>	<b>19.706</b>	<b>4.547</b>

#### GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	HABE	IVAP	EHPI	Eustat	Osalan	Emakunde
<b>Salmentak eta zerbitzuen emakida.....</b>						
10.910	1.672	67	27	26	-	-
Transf. eta dirulag. Eragind. sarr.....	31.388	15.133	12.915	12.855	15.191	5.928
Bestel. kudeaketa sarrerak .....	153	347	42	-	3	8
Langileen gastuak .....	(3.697)	(5.407)	(8.152)	(7.885)	(9.280)	(1.898)
Kanpoko zerbitzuak .....	(6.474)	(13.744)	(5.717)	(3.616)	(4.362)	(2.208)
Transferentziak eta diru laguntzak .....	(33.011)	(480)	-	(12)	(3.654)	(1.052)
Ibilgetuen amortizazioet. hornidurak.....	(196)	(162)	(1.177)	(900)	(348)	(137)
<b>KUDEAKETA MOZKINA / (GALERA)</b>	<b>(927)</b>	<b>(2.641)</b>	<b>(2.022)</b>	<b>469</b>	<b>(2.424)</b>	<b>641</b>
<b>FINANTZA MOZKINA/ (GALERA)</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
Emaitzara eskuald. kapital dirulag. ....	58	-	522	-	98	12
Beste ekit. batz. Sarr./ (Gastuak).....	-	23	(38)	-	53	12
<b>APARTEKO MOZKINAK/ (GALERAK)</b>	<b>58</b>	<b>23</b>	<b>484</b>	<b>-</b>	<b>151</b>	<b>24</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINA / (GALERA)</b>	<b>(868)</b>	<b>(2.616)</b>	<b>(1.537)</b>	<b>469</b>	<b>(2.272)</b>	<b>666</b>





## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE AUTONOMOEN FISKALIZAZIOAREN 2010EKO EKITALDIKO EMAITZEI EGINKO ALEGAZIOAK**

### **I. HITZAURREA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomoen fiskalizazioaren 2010eko ekitaldiko emaitzei erantzute aldera, otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikulua betez, txosten honetan bildu dira aipatutako gaiari buruz kudeaketa-organo bakoitzak egoki iritzi dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu dituen alegazioak eta justifikazioak.

### **II. IRITZIA**

#### **II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

*1.- Ekitaldi bakoitzean egin beharreko estatistiken arabera (ezarritako egutegi eta iraupen batekin), EUSTATek elkarritzetagileak (inkestagileak) behar ote dituen aztertzen du eta, ondoren, estatistika horiek egiteko premiazkotzat jotako langileen kontratazioa izapidetzen da, langile-premia horiek egonkortzat jo gabe.*

*Langileen kontratazio hori “lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin” egiten zen, baina hainbat epaik 96 langile aldizkako langile finkotzat aitortu ondoren, aldizkako langile finkoen deialdiak egin dira epai horiek halakotzat jotako langileen artean.*

*Langileen aurrekontu-zerrendei dagokienez, EFPLk 21.3 artikuluan ezartzen du aurrekontuetan azaldu beharko direla iraunkortasunik ez duten edo aurrez ikusi ez diren lanpostuei ez dagozkien presako edo noiz behinkako lanetara bideratutako aurreikuspenak. Horrela jaso izan dira orain arte, hasieran aldi baterako kontratu bezala (CAA 131n) eta, gero, aldizkako lan-kontratu finko bezala (CAA 130ean).*

*9.-Euskal Autonomia Erkidegoko Araubideari buruzko Legearen 57. artikuluan adierazitakoa betez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak lurraltearen araberako sailkapena eginda prestatzen dira, artikulu horretan aurreikusten diren aurrekontuak prestatzeko arau teknikoetan biltzen diren irizpideekin bat etorriz.*

*Aurrekontuak Legebiltzarrean onetsitakoan, gauzatzea ere lurraltearen arabera azaltzen da<sup>1</sup>.*

*Horren ondorioz, bete egin da 57. artikuluan xedatutakoa, aurrekontu-programen egiturak lurraltearen araberako sailkapena barne hartzen baitu.*

*Bestalde, Aurrekontuen Legea onartzea Legebiltzarraren eskumena da eta, beraz, ez da egokia EAEko Administrazioaren ekonomia- eta finantza-jardueraren legezkotasunaren ez betetze gisa aipatzea.*

---

<sup>1</sup> Aurrekontuak egiteko eta egikaritza kontabilizatzeko gastuak eta sarrerak lurralteka bereizten dituzte; alabaina, horiek onartzen dituztenean ez dute dagokion lurraltearen araberako sailkapena egiten.



## II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

### 1.- Diruzaintzako gerakinei eragiten dieten doikuntzak

*IVAP*

Ez da egokia EHUn antolatutako kongresu bati lotutako aurrekontu-gastu zorpetu gabekoari dagokion doikuntza; izan ere, EAEko Aurrekontu Araubideari buruzko Legeak 111.5 artikuluan ezartzen duenaren arabera, “diru-laguntzen gastuei dagokienez, diru-laguntzak emateko uneak baldintzatuko du ordainketa egin beharra”, hau da, kasu honetan 2010ean.

*EHPI*

Ez da egokia 2011n ordaindutako ordainsari aldagarria doitza Herrizaingo Saileko eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko langileen hitzarmen kolektiboan helburuak lortzeagatiko ordainsari aldagarr bat dago ezarrita, hurrengo urteko martxoan ordaintzen dena, helburu horiek ebaluatu ondoren, alegia. Hori dela eta, ordaindu beharreko zenbatekoa finkatu eta ebatzi, eta ordaintzeko eginbeharra aitortzen den ekitaldian gauzatzen da aurrekontu-egozpena; kasu honetan 2011n.

Irakasleak lanpostutik kentzeagatiko kalte-ordinari dagokionez, aintzat hartu behar da zenbatekoak zehazten dituen eta ordainketa agintzen duen Lan Arloko Epaitegiaren Autoa hurrengo urteko urtarriaren 20koan dela. Halako egoeretan, ordaintzeko eginbeharra aitortzen den ekitaldiko aurrekontuari egozten zaio gastua.

2.- Ezin da konprometitutako kreditu gisa erregistratu 2010eko Urteko Kontuetan 2011ko urtarrileti irailera hilabetei dagokien udal-euskaltegientzako diru-laguntza.

2010eko ekitaldian ez zen diru-laguntzen deialdirik egin 2010/2011 ikasturterako; aitzitik, zuzeneko diru-laguntza eman zen 2010eko urritik abendurako aldirako. Ondoren, 2011n, diru-laguntzen deialdia (8,6 milioi eurokoa) egin zen 2011ko urtarrileti irailera aldirako.

Horrenbestez, ekitaldia ixtean ez zegoen konprometitutako krediturik hurrengo ekitaldirako, zegokion deialdia egiteko aurreikuspena baizik<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Hain zuen ere, ez zen konpromisoa gauzatu eta gertakari honen berri atxikitako kontuek eman behar zuketen, euskaltegi pribatuekin 2010/11 ikasturtearen gainerakoa finantzatzeko konpromisoa soilik jasotzen zela adieraziaz. Udal euskaltegiekiko konpromiso ekonomikoa 2010eko abenduaren 31n ere bazegoen.



### **III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.**

#### **III.2. LANGILEAK.**

1.- Aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko deialdietan, arau honi egiten zaio men: Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren Agindua, 2006ko maiatzaren 30eko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzen duena (2006ko ekainaren 30eko EHAA).

2.- Ohar bat egin behar da zehaztapen honi dagokionez: "EHPIko langileen kasuan, erakunde horren eta Herrizaingo Sailaren aldi baterako langileetara mugatzen da deialdia (langile horien Hitzarmen Kolektiboko 16. artikulua)". Izañ ere, zehaztu behar da aipatzen diren deialdiak aldi baterako langile-beharrizanak betetzeari dagozkionak direla..

Esandakoa hitzez hitz hartuta, pentsa liteke aldi baterako lanpostuak bakarrik eskaintzen zaizkiela aldi baterako kontratutako langileei baina, egiazki, beharrizan horiek langile finkoei eskaintzen zaizkie lehendabizi eta, halako eskatzailerik ez badago, aldi baterako langileei.

Aldi baterako beharrizanak ezin direnean bete, ez langile finkoen ez eta aldi baterako langileen eskutik ere, kontrataazio-poltsak osatzen dituzten langileei eskaintzen zaizkie.

3.- Atal horren bukaeran ageri den taulari dagokionez, Eustateko langileei buruzko 2010eko abenduaren 31ko datuak zehaztu egin behar dira, une hartan Eustatek karrerako 61 funtzionario baitzituen, jabetzako lanpostuarekin; horietatik 41 Eustaten ari ziren lanean data hartan, eta gainerakoak zerbitzu-eginkizunetan zeuden Administrazio Orokorrean. Azken horien lanpostuak bitarteko funtzionarioek bete zitzuten, ezin baitziren lan-eskaintza publikora atera. Horrenbestez, bitarteko funtzionarioak (lanpostuaren jabe izan gabe dihardutenak) ez ziren 86k, lanpostu hutsak hartu zitzuten 43 baizik, hau da, langile guztien %41,34<sup>3</sup>.

---

<sup>3</sup> 2010eko ekitaldian langile finkoek bete gabeko lanpostuen ehunekoaren berri ematen da. Bitarteko funtzionarioen bitartez betetako funtzionarioen 20 plazak 86 horietan barne hartuak daude.



### **III.4. ONDASUNAK, ZERBITZUAK ETA INBERTSIOAK ESKURATZEA**

#### *HABE*

##### *1. KONTRATUA (IKASBIL ATARIA)*

*1.- 4. hutsunea. Erantsitako baldintza-agiriak eta irizpideak: orokorrak dira, aintzat hartutako alderdiak zehaztu gabe, ezta baremazio-sistema ere (Sektore Publikoko Kontratuai buruzko Legea, 134. artikulua).*

*Balio-irizpena behar duten alderdien balioespen-irizpideak, dagokien Baldintza Teknikoen Agirian jasotakoak, orokorregiak izan daitezke. Ez, ordea, automatikoki balioets daitezkeen alderdiak, azken horiek behar bezala zehaztuta baitaude. Esleipen-irizpideen kopia erantsi da.*

*2.- 8. hutsunea. Txosten teknikoak ez ditu arrazoitzen balio-irizpena behar duten irizpideen puntuazioak (Sektore Publikoko Kontratuai Legea, 135.1 artikulua).*

*Espedientea osatzen duen agiri teknikoaren kopia erantsi da.*

#### *EUSTAT*

*9. kontratua (“Familiako gastua: familia-aurrekontuak” izeneko estatistika-eragiketaren prestakuntza, informazio-bilketa, kodifikazioa grabazioa eta balioztatzea).*

